

Proiektuaren deskribapena

Gure proiektua, autozine batean datza, non gure asmoa koronabirus garai



gogor honetan gazteak haien aisialdia pasatzeko leku bat izatea da. Horretarako kotxea ez duten gazteetzako 10 auto luzatuko ditugu. Kotxe hauek, desguazetik lortuko ditugu eta UGLEn ikasten duten karrozeriako ikasleak konpontzen lagunduko digute.

Auto zinean bertan janaria eskainiko diegu filma ikusten duten bitartean janariaz gozatzeko. Janariari dagokionez, bertako produktuak erabiltzeaz arduratuko gara, ahalik eta osasungarriena izateko.



Pelikularen arabera, bezeroak haren tematikatik ahalik eta hurbilen sentiarazi nahi ditugu. Eta horretarako, hainbat jantzi prestatuko ditugu enpleatuentzat eta abar. Bezeroak aukera izango dute tematikaren arabera jantziak eramateko.